



2HI-165/06-P03-A

TEODORO OLEA ITURREGI, EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN BIZKAIKO HIRIGINTZA PLANGINTZAKO ATALEKO IDAZKARIAK.

TEODORO OLEA ITURREGI, SECRETARIO DE LA SECCIÓN DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO DE BIZKAIA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

ZIURTATZEN DUT: uztailaren 19an Bizkaiko Hirigintza Plangintzako atalak egindako 5/2007 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

CERTIFICO: Que, en la Sesión 5/2007 de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Bizkaia, celebrada el día 19 de julio, se adoptó por mayoría de los miembros asistentes y con el voto discrepante de la representación de la Diputación Foral de Bizkaia, el siguiente acuerdo:

I.- 2006ko abenduaren 20ko Batzordearen erabakian adierazitako baldintzak betetzeari dagokionez, Barakaldoko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Lutxana-Burtzeña inguruan aldatzeko Testu Bateginaren txostena egin da, honako alderdi hauek kontuan izanik:

I.- Informar el expediente de Texto Refundido de la "Modificación del Plan General de Ordenación Urbana en la zona de Lutxana-Burtzeña", del municipio de Barakaldo, en lo que respecta al cumplimiento otorgado a las condiciones señaladas en el acuerdo de la Comisión de fecha 20 de diciembre de 2006, en los términos que se citan a continuación.

Txosten hori loteslea da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean adierazitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean adierazitakoaren arabera eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremani buruzko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean ezarritakoaren arabera.

Tal informe es vinculante de acuerdo con lo señalado en la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, en la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco, y en la Ley 5/1993, de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

1.- Plan Territorial Sectorial de Ordenación de márgenes de ríos y arroyos

a) Espedientea behin betiko onartuko bada, etorkizuneko Barne Erreformarako Plan Bereziak honako zehaztapena ezarri beharko du –Kosta Legea aplikatuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (isurialde kantauriarra) aplikatuta–: eraikuntzak gutxienez 20 metro atzeratu beharko dira Nerbioi ibaiarekiko (ibaia ubideratuta dago) eta 25

a) Condicionar la aprobación definitiva del expediente a que en aplicación del Plan Territorial Sectorial de ordenación de márgenes de ríos y arroyos de la CAPV (Vertiente Cantábrica) y de la legislación de Costas, se establezca como determinación impuesta al futuro PERI los retiros mínimos de la edificación de 20 metros con respecto al Nervión (el río está encauzado) y de 25 metros con respecto



metro Kadagoa ibaiarekiko (ibaia ez dago ubideratuta).

b) Urpean geratzeko arriskua.

- Uren Zuzendaritzak egindako txostenaren arabera, espedienteak onartzeko, honako zehaztapena sartu beharko da bertan:
  - Egin beharreko jardunak zehaztu beharko dira, eta aurreragoko garapeneko hirigintza-dokumentuetan xehatu beharko dira. Nolanahi ere, Kadagoa ibaiaren azken tarte eta itsasadarrarekin bat egiten duen gunea urpean geratzeko arriskuari buruzko azterlanaren emaitzetara egokitu beharko dira jardun horiek. Ibilgua eta urbanizazioaren sesten kotak berriro mugatu beharko dira. Alderdi horiek, eta beharrezkoak izan daitezkeen beste batzuek, bermatuko dute inguru horretan 500 urteko birgertatze-aldiko uholdeetan urpean geratzeko arriskua ezabatzea. Horrez gain, gaur egungo arriskua hobetzeko, etorkizunean inguru horretan egokitzapen hidraulikoko jardunak egin ahal izateko aukera emango dute. Uren Zuzendaritzak azterlan hori berraztertu eta onartu beharko du.
- 05 Barne Erreformatarako Plan Bereziaren antolamenduak eta kudeaketak, bestalde, espedienteak antolatutako esparruko lur guztiak hartu beharko ditu, hau da, Barne Erreformatarako Plan Bereziaren esparruaren eta Kadagoa eta Nerbioi ibaien arteko lur guztiak.

## 2.- Arloko alderdiak. Poluituta dauden lurren eta kultur ondarearen gaineko eragina

Alderdi hauen balorazioa Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, hurrenez hurren, egiten dituzten txostenetarako

al Kadagua (el río no está encauzado).

b) Inundabilidad.

- De acuerdo con el informe emitido por la Dirección de Aguas se condiciona la aprobación a la introducción en el expediente de la siguiente determinación:
  - La concreción de las actuaciones a realizar, que habrá de pormenorizarse en los posteriores documentos urbanísticos de desarrollo, se acomodará a los resultados del estudio de inundabilidad del tramo final del Kadagua y de su confluencia con la ría que habrá de acometerse, y que definirá una nueva delimitación del cauce y las cotas de las rasantes de urbanización, aspectos que, junto con otros que pudieran resultar necesarios, deberán garantizar la eliminación del riesgo de inundación correspondiente a la avenida de 500 años de periodo de retorno en esta zona y permitir las futuras actuaciones de adecuación hidráulica de su entorno para la mejora de su actual riesgo. Ese estudio deberá contar con la supervisión y obtener la aprobación de esta Dirección de Aguas.
- Así mismo se incorporará la condición de que la ordenación y gestión del PERI 05 ha de abarcar a todos los terrenos del ámbito ordenado por el expediente ubicados entre tal ámbito de PERI y los ríos Kadagua y Nervion.

## 2.- Aspectos sectoriales. Afección a suelos contaminados y Patrimonio Cultural

Remitir la valoración de estos aspectos a los informes que emitan la Dirección de Calidad Ambiental y la Dirección de Patrimonio Cultural respectivamente.



uztea.

### 3.- Udalerri mugakideetako lurraldeekiko lotura.

Lurralde-antolamenduko dokumentuen arabera, zuzena da esparruaren eta eskuinaldearen, Erandioko udalerraren eta Zorrozaiko penintsularen (Bilboko udalerrian) arteko bide-egiturari emandako erantzuna.

### 4.- Bizkaiko Errepideen Lurraldearen Arloko Plana. Errepideen Zuzendaritza.

a) Bizkaiko Foru Aldundiko Errepideen Zuzendaritzak egindako txostenaren arabera, espedientea behin betiko onartzeko, honako zehaztapenak sartu beharko dira espedientean:

- Bide-sistema orokorren lagapena ezin izango da baztertu irabazizko aprobetxamendua duten esparruak kudeatzean.
- Dokumentua osatzeko, zehatz-mehatz definitu beharko dira sistema orokorren eta hirigintza-garapeneko esparruen arteko konexioak, baita hirigintza-eremuetako bakoitzean aurreikusten diren denbora-agertokietako bakoitzerako bide-irisgarritasuna ere.

### 5. Kultur Ondarea

FESA industria-pabilioia Ondasun Kultural gisa kalifikatuta dago, monumentu kategoriarekin (abenduaren 26ko 372/2001 Dekretu bidez kalifikatua, 2002ko urtarrilaren 7ko 4 zenbakiko EHAA).

7/1990 Legearen 12.2 artikulua adierazten duenez, ondasun bat kalifikatu egiten bada, berehala izango da aplikatzekoa kalifikazio horren ondoriozko babes-erregimena. Hortaz, Antolamendu Arteztarauak dokumentuko 3. idatz-zatian zehazki aipatu beharko da kalifikazio hori, eta aditzera eman beharko da 372/2001 Dekretu horretan zehaztutako babes-erregimenaren arabera arautuko direla ondasun kalifikatuan egin daitezkeen esku-hartzeak.

### 3.- Engarce con los territorios de los municipios colindantes.

Estimar correcta de acuerdo con los documentos de ordenación territorial la respuesta dada a la estructuración viaria del ámbito con la margen derecha, municipio de Erandio y la Península de Zorroza, municipio de Bilbao.

### 4.- PTS de Carreteras de Bizkaia. Dirección de Carreteras.

a) De acuerdo con el informe emitido por la Dirección de Carreteras de la Diputación Foral de Bizkaia, se condiciona la aprobación definitiva del expediente a la introducción en el expediente de las siguientes determinaciones:

- No podrá excluirse la cesión de los sistemas generales de tipo viario de la gestión de los ámbitos con aprovechamiento lucrativo.
- Se complementará el documento con la definición pormenorizada de las conexiones de los sistemas generales con los ámbitos de desarrollo urbanístico, así como con la definición de la accesibilidad viaria para cada uno de los escenarios temporales previstos a las distintas áreas urbanísticas.

### 5. Patrimonio Cultural

El Pabellón Industrial de FESA se encuentra calificado como Bien Cultural con la Categoría de Monumento (Decreto 372/2001 de 26 de diciembre BOPV nº 4 de 7 de enero de 2002).

El Art. 12.2 de la Ley 7/1990 señala que el otorgamiento a un bien de la condición de calificado determinará la eficacia inmediata del régimen de protección que conlleva dicha calificación, por lo que en el apartado 3 del documento "Directrices de Ordenación", deberá señalarse explícitamente la circunstancia de su calificación, especificando que las intervenciones posibles en el Bien Calificado se regularán por el régimen de protección especificado en el mencionado Decreto 372/2001.



**II.** Izaera loteslea ez duten alderdi hauek ere nabarmendu behar dira:

- a) Barakaldoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak adostuko dute bide-azpiegitura orokorrak gauzatzeko finantziazio-modua.
- b) Bilbo Metropolitarrako Lurraldearen Zatikiko Planera egokituko dira, "ardatz metropolitarra" ibilbide osoan zehar ezabatzeari dagokionez.

**III.-** Barakaldoko Udalak baldintza horiek espedientean sartu ondoren, behin betiko onartzeko aurkeztu ahal izango du espediente, Batzorde honi berriro ere igorri behar izan gabe. Dena den, espediente honen mende dagoen esparruari dagokion Barne Erreformatarako Plan Berezia Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzorde honi igorri beharko zaio, honek balora dezan.

**IV.-** Espediente behin betiko onartzeko eskumena Barakaldoko Udalari igorriko zaizkio ziurtagiri honi gaineratzen zaizkion Uren Zuzendaritzaren txostena (I. Eranskina), Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lanen Zuzendaritzak (II. Eranskina) eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostena (III. Eranskina)."

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2007ko abuztuaren 1ean.

**II.** Indicar con carácter no vinculante los siguientes extremos:

- a) El ayuntamiento de Barakaldo y la Diputación Foral de Bizkaia acordarán la forma de financiación de la ejecución de las diferentes infraestructuras viarias de carácter general.
- b) Se adecuará el PTS de Carreteras al PTP del Bilbao Metropolitano en lo que respecta a la supresión del "Eje Metropolitano" a lo largo de todo su recorrido.

**III.-** El ayuntamiento de Barakaldo tras la incorporación al expediente de las condiciones señaladas podrá elevarlo para su aprobación definitiva sin necesidad de remitir nuevamente el mismo a esta Comisión. No obstante, el PERI correspondiente al ámbito objeto de este expediente se remitirá a esta Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco para su valoración.

**IV.-** Remitir al Ayuntamiento de Barakaldo como órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por la Dirección de Aguas (Anexo I), Dirección de Obras Públicas de la Diputación Foral de Bizkaia (Anexo II) y Dirección de Patrimonio Cultural (Anexo III) que se acompañan a la presente certificación."

Y para que así conste expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 1 de agosto de 2007.

IDAZKARIA/ EL SECRETARIO

Izta.: Teodoro Olea Iturregi. :Fdo